

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala

Soziolinguistika lantzen ikasgelan



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Eskoriatzan, 2020ko urrian



SARRERA

Ikasgeletan izandako esperientziatik ikusi eta ikasitakoaren hurbilpen bat

- DBH4ko ikasleekin soziolinguistikaz eta psikolinguistikaz
- Balioa: Pentsatzen eta sentitzen dutena ulertzea
Beraiekin hitz egiten ikasteko

2014 urtetik hona, 3000 ikasle baino gehiagorekin izandako esperientzian pilatutakoa



Gaztelaniaren abantailak (2 saio)

ONDORIOAK

- Gaiari buruz hitz egin nahi dute, iritzia eman nahi dute
- Ezin onartu, beren burua zuritu → epaituak sentitzen dira, epaitu egiten dute
- Deserosotasuna (norbera) ≠ **ezina** (testuingurua)
- Ikastetxeen araberako mailaketak
- Aurreiritziak: jatorria, eskola, lekua, hizkuntzen gaineko usteak

IKUSI ETA ENTZUDAKOEKIN PROPOSAMEN BERRI BATEN BEHARRA



HASIERAKO IRAKURKETA

PARTE HARTZEA

Handia, gogoia iritzia emateko.

Gai astunaren espektatiba, baina piztu egiten beren bizipenez hitz egitean

Aniztasun handia iritzietan

AURREIRITZIAK

Euskalduntasunaren mailaketa

Erdalduntzearen arrazoiak

Patroi zaharrei portaeran

Euskararen gaineko balioak

SENTIMENDUAK

Euskaldun izateko merezimendua edo merezimendu falta

Besteen euskalduntasunarekiko mespretxua

Etsipena – harrotasuna
Gaiarekiko nekea

Beren burua zuritu beharra, kosta gaztelaniaren onurak lasai adieraztea



HASIERAKO IRAKURKETA

Ingurune euskaldunean

ALDERDI POSITIBOAK

- Garrantzitsua da euskararen erabileraren gainean hitz egitea.
- Interesa eta parte hartzea oso handia, balorazio orokorra oso positiboa.
- Solaskideak gaztelaniaz hitz egin arren, gazte batzuk euskaraz erantzuteko ohitura dute. Lagunarte gutxi batzuetan batzuk beti egiten dute euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Helduen artean ez dago ohitura honi eusten dion eredu asko; hortaz, portaera berriak erakusten dituzte.

ALDERDI NEGATIBOAK

- Euskaldunen arteko mailaketa
- Batzuei kosta egiten zaie euskara identitate ikur moduan ikustea.
- Patroi zaharrak; batek gaztelaniara jotzen badu, gehienek gaztelaniara jotzen dute, eta horrela egin behar dutela uste dute.
- Euskara mugatzaile izan daiteke (lan munduan, informazio iturrietan, aisialdian...)
- Nerabeek aisialdirako aukeratzen dituztenak gaztelaniaz daude. Interes gutxi euskarazko produktuetan.
- Aurreiritzi asko. Talde batetik bestera errepikatu egiten dira

HASIERAKO IRAKURKETA



Ingurune erdaldunean

ALDERDI POSITIBOAK

- Garrantzitsua da euskararen erabileraren gainean hitz egitea.
- Interesa eta parte hartzea oso handia, balorazio orokorra positiboa.
- Beraien errealitatea balioan jartzeak positiboki poztu ditu, eta hizkuntza komunitatearekin konektatzen dute.
- Orain daukaten euskara mailarekin, ingurune euskaldunean euskaraz egingo luketela uste dute.

ALDERDI NEGATIBOAK

- Euskaldunen arteko mailaketa
- Salbuespena euskaraz bizi den gaztea (ingurune hurbil euskalduna dutenek ez dute taldean aitortzen, lotsa).
- Euskara mugatzaile izan daiteke (lan munduan, informazio iturrietan, aisialdian...)
- Gaia astuna, euskaraz bizitzea arrotza, beraien errealitateak oso urruti. Eskolarako eta gutxi gehiago. Baina euskararen alde.
- Patroi zaharrak: batek gaztelaniara jotzen badu, gehienek gaztelaniara jotzen dute, eta horrela egin behar dutela uste dute.
- Aurreiritzi asko, eta talde batetik bestera errepikatu egiten dira



Soziolinguistika lantzen (4 saio)

Erantzun berria prestatzeko:

- Zarauzko Udala
- Berritzegunea
- Hainbat irakasle
- Emun

4 saio, 4 gai, eta helburu sorta bat:

- Hizkuntzak munduan, hizkuntzen ekologia, euskara mundu eleanitzean
- Identitatea: euskalduna eta gaztea
- Arnasguneak
- Jarrera eta portaera

Gaiak helbururako bidea egiteko aitzakia



SAIOEN KUDEAKETA

Helburuak

- Hizkuntza kontzientzia lantzea.
- Aurreiritzien azterketa kritikoa egitea.
- Hizkuntzen eta hiztunon gainean gogoeta egitea.
- Hizkuntzen kudeaketaren gainean iritzia eraikitzen laguntzea.
- Hizkuntza-aniztasunaren balioa eta kudeaketa barneratzea.
- Euskarari berezko lekua ematea; egikaritzeko beharrezko baliabideak garatzea.
- Hizkuntza jarrerak eta portaerak lantzea, erabakira hurbiltzea (hiztun asertiborako bidea).
- Identitateaz gogoeta egitea.

Dinamizatzailearen estrategiak

Segurtasun espazioa sortu:

- Iritzi guztiek lekua izan dezaten
- Sentitzen dutena identifikatzeko eta adierazi ahal izateko (emozioari hitza jarri)

Pentsatzen duten abstrakzioa hitzetara ekartzen lagundu.

Galdera egokiak egin erantzunetara iritsi daitezen.

Kontraesanak, inkoherentziak ikusten lagundu.

Baliabideak bilatzen eta argudioak josten lagundu.

Ezintasunen aurrean, egiteko modu errealak irudikatu, entseatu.



USTEAK, ABILEZIAK ETA ZAILTASUNAK

Usteak

- Oro har, euskaraz egiten dutena baino gehiago egiten dutela uste dute.
- Euskalduntasun mailaketa egiten dute eskolaka. Ikasgelako araua betetzen ez duena salbuespena dela uste dute eta sentitzen dira.
- Hirietan gaztelaniaz egin behar da; ez dakite.
- Euskaraz egitearen garrantzia erlatibizatzen dute. “Total, gaztelaniaz ulertzen bagara...” Edukazio onaren aspaldiko leloarekin bat egiten ez badute ere, bertsio berriak dio zentzurik ez duela euskaraz egiteak besteek erdaraz egiten badute; baita ulermena bermatuta dagoenean ere.

Abileziak

- Elkarrizketa elebiduna normaltasunez, gehienetan, batera edo bestera baten batek zailtasuna badu.

Zailtasunak

- Batzuei beren lekua hartzea kostatzen zaie (taldearen gogoia gainditzea) → ahalduntzeko beharra.
- Rol oso definituak dituzten ikasleak daude ikasgela gehienetan (beti euskaraz edo beti gaztelaniaz).
- Batzuk beren roletatik ateratzeko zailtasunekin; beste batzuk eroso bere horretan.
- Eusleak direnak, gehienetan:
 - Ingurune erabat euskaldunean bizi direlako.
 - Beste hizkuntzan deseroso aritzen direlako.
- Beren arnasmunik ateratzean, gaztelaniaz.
- Iritzien grisak ikustea kosta → *tope* euskalduna da, erdalduna da.



KANPO BEGIRADAREN BALIOA

- Freskotasuna, ezinei buruz hitz egiteko espazioa, irakasleei buruzkoak esateko aukera, hautu guztiei aukera emateko espazioa, balioan jartzeko bidea ematen du.
- Guk ez dugu arauaz hitz egiten, portaera eredugarriez baizik, berdin ikasgelan zein kanpoan.
- Kideek izan nahi duena izaten laguntzeari buruz hitz egin. Bakoitzarentzat zentzua zerk daukan bilatu: taldekoek zer nahi lukete? Nik zer nahi nuke?
- Ludikotasuna: saioak zentzua du hitz egiten badute.
- Jarrera aktiboa izatera bultzatu. Konplizitatez, enpatiaz hitz egin.
- Iritzia emateko gogoz daude. Akatsak zuzendu, iritziei kontra egin gabe. Iritza “ondo josten” lagundu.

Ikasleen balorazioak:

Gustura aritu dira eta gomendatuko lukete.

Ikasteko, konturatzeko, hausnartzeko eta portaera aldatzeko balio die.

Euskarara iristen ari direnen balorazioak >> besteentzat daukan garrantziaz ohartzen dira, eta beren ahalegina balioan jartzen dute.



LORPENAK

- Beren burua kokatu euskaldunon komunitatean
- Iritziei lekua egin, gaiaz epaituak direnaren sentsazioa uxatu
- Jarrera eta portaeraren arteko aldea ezagutu eta norberarena ikusi
- Errotutako roletatik ateratzeko aukera sentitu, eta kasu batzuetan atera
- Euskara(-z hitz egitea) gutxiestea arindu
- Kontrako jarrera batzuk anulatu
- Iritsi berriei beraien herrialdeko hizkuntzak ezagutzen lagundu, eta euskarari lekua egiteko gogoia piztu
- Hizkuntza gatazken aurrean, soluzio bateratuak bilatzen dituzte, parte hartze aktiboa konponbidean
- Euskararako mudantzan, zama arindu
- Ikaskideen ibilbide linguistikoa partekatzean, familia-hizkuntzei balioa eman

Erdara hutsean aritzen zen ikasle baten azken gogoeta:

“Es como cuando te gusta un sabor, que no pruebas otro porque ya sabes que este te gusta y dices que el otro no te gusta. Pero en realidad no lo has probado y no sabes si te gusta. Es porque no has mostrado interés y a lo mejor te gustaría.”

Eskerrik asko

Ainhoa Lasa
ainhoa.lasa@emun.eus

emun'
Euskara eta
berrikuntza soziala